

**DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2019**

**OSALAN**

1. Deialdia, 2019an prebentzioko ordezkarien oinarritzko prestakuntza emateko baimenei eta diru-laguntzei buruzkoa ..... 2



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimenei eta diru-laguntzei buruzko deialdia**

#### 2.- Araua

125/2018 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez ezartzen baitira EAEko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariak trebatzeko oinarrizko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuak diruz laguntzeko programaren oinarri orokorrak.

HUTSEN ZUZENKETA, 125/2018 Dekretuarena, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez ezartzen baitira EAEko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariak trebatzeko oinarrizko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuak diruz laguntzeko programaren oinarri orokorrak.

EBAZPENA, 2019ko apirilaren 4koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bitartez argitara ematen baita 2019ko dirulaguntza deialdi bat, ekitaldi horretan EAEko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariak trebatzeko oinarrizko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuei zuzendua.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

125/2018 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa (EHAA, 149. zenbakia, 2018ko abuztuaren 3koa)

HUTSEN ZUZENKETA, 125/2018 Dekretuarena, uztailaren 30ekoa, (EHAA, 177. zenbakia, 2018ko irailaren 13koa)

EBAZPENA, 2019ko apirilaren 4koa. (EHAA, 80. zenbakia, 2019ko apirilaren 30koa)

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Prebentzioaren arloko ordezkariak gaitzeko oinarrizko mailako prestakuntza eman nahi duten erakunde publiko zein pribatuei deialdia egitea da ebazpen honen xedea.

Erakundeen betekizunak: Hezkuntza sistemak, Gizarte Segurantzako laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen mutualitateek edo egiaztatuta dauden prebentzioko zerbitzuek aitortutako eta homologatutako zentroak izatea.

Oinarrizko prestakuntzari buruzko prestakuntza-ekintzak jaso behar dituzte, osasunaren eta laneko arriskuen prebentzioaren arloko lanbidearteko akordioan ezartzen dena betez. Bi atal izan behar dituzte: lehenengoa 16 ordukoa, araei buruzko informazioarekin, eta bigarrena 32 ordukoa, prestakuntza teknikoari buruzko informazioarekin.



## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Guztira 64 ikastaro egin dira, araei buruz: 11 Araban, 29 Bizkaian eta 24 Gipuzkoan. Prebentzioko 1.061 ordezkari prestatu dira (736 gizon eta 325 emakume).

Guztira 41 ikastaro egin dira, arlo teknikoari buruz: 8 Araban, 21 Bizkaian eta 12 Gipuzkoan. Prebentzioko 722 ordezkari prestatu dira (507 gizon eta 215 emakume).

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Arauei buruzko ikastaroen kp.	50	64
Arlo teknikoari buruzko ikastaroen kp.	50	41
Ikasleen kp.	1.200	1.783